

Emakumeen aurkako indarkeria matxita EAEn: pertzepzioa eragina eta segurtasuna

Ikerketa-proiektu handi bat abiarazi du Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak 2011. urteko bigarren seihilekoan, eta haren asmoa izan da euskal gizarteak genero-indarkeriari buruz duen pertzepzioa, hau da, hura nola hautematen duen aztertzea, eta emakumeen aurkako indarkeria matxistako egoerek Euskal Autonomia Erkidegoan duten eragin kuantitatiboa ikertzea. Horrez gain, proiektuak jakin nahi izan du herritarrek, eta, bereziki, emakumeek nola ikusten edo hautematen duten beren segurtasun-egoera.